


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,2 igo dira 2024ko apirilean

Urte artean, 2024ko apirila eta 2023ko apirila alderatuta, prezioak % 3,7 hazi dira.

Eustatek landutako datuen arabera, 2024ko apirilean, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,2 igo zen, aurreko hilaren aldean. 2023ko hil beraren aldean, kostuak % 3,7 gehitu dira.

Bestalde, Eraikingintzako eta Obra Zibileko kostuak % 0,2 igo dira: 2023ko apirilaren aldean, prezioak % 3,5 igo dira Eraikingintzan eta % 4,2 Obra Zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren, 2024ko martxoaren, aldean, **lehengaien** kostuak % 0,3 igo dira, eta **eskulanaren** kostuak, berriz, ez dira aldatu; baina urte arteko datuei dagokienez, bien kostuak % 3,2 eta % 5,4 igo dira, hurrenez hurren.

Lehengaien kostua % 0,3 igo da hil artean, bai Eraikingintzaren sektorean, bai Obra Zibilaren sektorean. Urte arteko bilakaeran, Eraikingintzako lehengaien kostuak % 3,0 igo dira eta Obra Zibilekoak % 3,8.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Apirila 2024

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	130,2	0,2	3,7
Eraikinak	129,4	0,2	3,5
Obra zibila	133,8	0,2	4,2
Lehengaiak	131,7	0,3	3,2
Eraikinak	130,6	0,3	3,0
Obra zibila	136,3	0,3	3,8
Laneskua	125,5	0,0	5,4

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Maiatzaren 24a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioak, 2024ko apirilean 2023ko apirilaren aldean, honako azpisektore hauetan gehitu dira gehien: *Mineral ez-metalikoak* (% 10,7), *Material elektrikoa* (% 8,0) eta *Altzarigintza* (% 2,7). Aldiz, gehien jaitsi direnak: *Energia elektrikoa eta gasa* (% 41,7), *Mineral ez-metalikoen industria* (% 7,7) eta *Industria kimikoa* (% 3,0).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Apirila 2024

	m / m-12
Ezmetalezko meak	10,7
Zuraren eta korbxoaren industria	2,1
Petrolioia fintzea	1,8
Industria kimikoa	-3,0
Kautxua eta plastikoa	-0,2
Produktu mineral ez-metalezkoak	-7,7
Metalgintza	-2,9
Metalezko artikulak	1,4
Material elektronikoa	-1,0
Material elektrikoa	8,0
Makineriaren fabrikazioa	1,5
Altzarigintza	2,7
Energia elektrikoa eta gasa	-41,7

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Maiatzaren 24a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62